



EUSKARA POLITIKA  
HNOS LARRINAGA BHIP

2017/02



AURKIBIDEA

1. HIZKUNTZA FILOSOFIA
  
2. HIZKUNTZA PERFILAK
  - a. Ikasleak
  - b. HL Pertsonak
  - c. Hezkuntza proposamena
  
3. HIZKUNTZA POLITIKA
  - a. Egoeraren eta praktiken azterketa
  
4. HIZKUNTZA POLITIKAREN JARRAIPEN – LAN TALDEA



## 1. HIZKUNTZA FILOSOFIA

Ikastetxea Juan eta Eusebio Larrinaga bermiotar anai biek sortu zuten 1966an. Hasieran Ermuan kokatu zen arren, urteak dira iada Bilbon finkatuta dagoela.

Fundatzaileen ordezkapena, anai horien seme-alabak hartu izan dute eta era batean, ogibidea pasatzeaz gain, balore eta printzipioak ere pasatu dituzte. Hauen artean, euskara eta euskal-kultura.

Horrela ikus genezake urtero egiten diren ekintzetan. Hona hemen adibide batzuk:

- Euskararen egunaren ospakizuna
- HL Jaialdia: ikasleek aurkezten dituzten proiektuen artean, euskal kultura



esanguratsua izaten da: pertsonai mitologikoak, ....

- Euskarazko hiztegiaren eguneratzea
- HL Sare Sozialetako argitarapenak

Nahiz eta 2017rarte, euskara Politika idatzi bat ez izan, betikoa izan da Hnos. Larrinagak euskararekiko izan duen lotura eta konpromesua. Lehenengo eta behin beharrezkoa ikusi da Hizkuntza-irizpide eta helburu orokor batzuk zehaztea:

#### **HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK:**

- Bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.
- Langileen prestakuntza orokorra eta etengabea: ahal den guztietan prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan emango da.
- Tresna eta aplikazio informatikoak: bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira.
- Internet eta intranet sareak: ikastetxearen eskumenean diren Internet eta intranet sareetako edukiak, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira.
- Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak: bulego, gela, biltegi, etab. euskaraz eta gazteleraz agertuko dira.
- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak: bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, beti ere hartzaileen ezaugarriak kontutan hartuta.

#### **JARRAIPENA:**

- Hizkuntza-politika urtean behin birpasatuko da eta horren jarraipena akta baten bitartez islatuko dugu.
- Bi urtetara aktetan islatutakoa Hizkuntza-politikan aldatuko dugu, helburu, ekintza eta lehentasun berriak jarritz.



### HELBURU OROKORRAK:

- Herritar eta bezeroeiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izatea bermatzea, betiere horien Hizkuntza-eskubideak errespetatuz
- Euskara beste enpresa edo eta administrazioekiko harremanetako ohiko Hizkuntza euskara izatea
- Euskara Ikastetxe barneko lan-hizkuntza izatea.

Helburu orokor hauek era zabalean jorratzeko, ikastetxeak ardatz desberdinak zehaztu ditu:

### HELBURUAK EME-ren ARABERA

#### 1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

- Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta nohizbehinkako oharrak)
- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
- Internet eta intranet sareak

#### 2. BEZEROEKIKO (pertsona fisikoak)/HERRITARREKIKO HARREMANAK

- Ahozko komunikazioa
- Idatzizko komunikazioa

#### 3. BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

- Hizkuntza-paisaia
- Ahozko komunikazioa
- Idatzizko komunikazioa
- Tresna eta aplikazio informatikoak

#### 4. PERTSONEN KUDEAKETA

- Langileen prestakuntza orokorra eta Hizkuntza-gaitasuna
- Kontratazioa eta hitzarmenak

#### 5. KANPO-HARREMANAK

- Ahozko komunikazioa
- Idatzizko komunikazioa
- Argitalpenak

#### 6. KUDEAKETA-SISTEMA (Hizkuntza Filosofian garatuta)



## 2. HIZKUNTZA PERFILAK

- a. Ikasleak: gaur egun, heziketa desberdina egiten duten ikaslegoa daukagu ikastetxean, eta baita edozein lekutatik datorrena. Nahiz eta portzentai altu baten gure ikasleak erdaldunak izan, badago ere euskaldunak direnak eta euskaraz mintzatzen dutenak.

Ikasle euskaldun kopuruaren datu zehatzak ateratzea ez da erraza, urtez urte adakorrak bait dira. Egoera desberdina izaten da Euskal Herriko zein lekutatik datozen kontutan hartzen badugu. Adibidez, durangalde, arratia edo/eta busturialdeko ikasle gehiago daukagunean, kopuru hori handia izaten da, aldiz, Bilbo Handia edo /eta honen mugakide diren herrietako ikaslea denean kopuru hori jeitsi egiten da.

- b. HL pertsonak: ikastetxeko langileen artean, lau talde bereziko ditugu:

- Irakasleak: 12 guztira (%33 euskaraz)
- Zuzendaritza taldea: 2 pertsona (%100 euskaraz)
- Idazkaritza taldea: 3 pertsona (%67 euskaraz)
- Garbiketa taldea: persona 1 (%0 euskaraz)

Guztira 18 pertsona osatzen dute Hnos. Larrinaga taldea. Hauetatik, euskara menperatzen dutenak %44a dira. Honek esan nahi du pertsona hauen artean euskara dela idatzizko (mezu elektronikoak) eta ahozko komunikazioa, bai barruko zein kanpoko harremanetan.

- c. Heziketa proposamena: hiru heziketa proposamen ditugu

- **Erdi mailako heziketa zikloak:** eusko Jaurlaritzak Itundutako A ereduko heziketa ziklo 2 ditugu, bat ile-apainketan eta beste bat estetikan. Hurrengoko ikastuteetarako beste itundutako heziketa ziklo bat lortuko bagenu, azkenengo hau euskaraz ematea izango zen helburua.

Ala ere, aipatzekoa da, azkenengo bi ikasturtetan, ikasleek betetzen duten eskaera orrian "Taldea sortuko baliz, interesatuko zitzaizun ikasketak B ereduan egitea?" galdera egin dela eta baietzen %a 21-28 artean dagoela soilik.

AURREMATRIKULAREN DATUAK (HEZIKETA ZIKLOAK)				
KURTSOA	BAI	EZ	ESKAERA KOPURUA	ESKAERA KOPURUEN BAIETZEN %a
2016-2017	14	51	65	21,54%
2017-2018	18	46	64	28,13%



- **NVQ ziurtagiriak:** Ingalaterran ofizialak diren eta 2 urtetako iraupena duten NVQ (National vocational Qualifications) ziurtagiriak eskeintzen ditugu. Kasu honetan ere heziketa A ereduan ematen dugu, oraindik ez dugu euskaraz talde bat sortzeko eskaera nahikorik eta eskatzen dutenen ikasleen gehiengo atzerrikoa da.

- **Lanbide eta Hobetuz:** enplegarritasuna hobetzeko eta laneratzea sustatzeko ikastaroak eskaintzen dira urtero. Momenturarte ikastaro hauen hizkuntza eredu gaztelaniaz izan da. Kasu honetan kontutan izan behar ikastaro hauetara sartzen diren pertsona asko atzerritarrak direla. Azkenengo bi deialdietan eskaera egin duten pertsona guztiei formakuntza euskaraz egitea gura duten galdetu zaie. Horrela, hurrengo deialdietara begira, gure formakuntza zein hizkuntzatan emateko, datu obejetiboak izango ditugu.

Adibide gisa, 2016ko deialdian bete diren eskaera kopuruen datuak aurkezten dira:

#### **2016ko DEIALDIA**

KURTSOA	Zb.	EUSKARAZ		ESKAERA KOPURUA	EUSKARA BAIETZEN %a
		BAI	EZ		
SERVICIOS AUXILIARES DE ESTÉTICA	16482140	3	42	45	6,67%
CUIDADOS ESTÉTICOS DE MANOS Y PIES	16481041	1	27	28	3,57%
BRONCEADO, MAQUILLAJE Y DEPILACIÓN AVANZADA	16482146	5	33	38	13,16%
PELUQUERÍA	16481044	2	48	51	3,92%
TRATAMIENTOS CAPILARES ESTÉTICOS	16482354	2	33	35	5,71%



### 3. HIZKUNTZA POLITIKA

#### a. Egoeraren eta praktiken azterketa

ZERBITZU-HIZKUNTZA		
ERAKUNDERAREN IRUDIA		
HELBURUA	EKINTZAK	LEHENTASUNA
1. Hizkuntza paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharra): <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxe barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia bermatu eta areagotu</li> </ul>	Ikastetxean bertan dagoen errotulazioa (kanpoko eta barrukoa) euskaraz edo elebietan dagoela bermatu.	2018-2019 ikasterterako ikastetxeko errotulazioa daramaten laneko arropak barriztu eta elebietan jarri.
2. Iragarpenak, ekitaldiak, publizitatea eta kanpainak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iragarpen, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia bermatu eta areagotu, komunikagarritasuna zainduta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxearen irudi korporatiboan elebietan jarri.</li> <li>- Ekitaldi guztietan hasierako eta amaierako agurrak euskaraz egitea.</li> </ul>	Oraindik ditugun poltsak amaitzen direnean, aldatu eta elebietan jarri
3. Internet eta intranet sareak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- web orria, intraneta eta erabiltzen ditugun sare sozialak elebidunak bermatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Web orria euskaraz kontsultatzeko aukera dago</li> <li>- Sare sozialetako argitalpenak %85 batean elebidunak dira</li> <li>- Intranet: ikaslearekiko dagoen informazioa elebietan dago (Hezkuntza eredia "A" denean, edukiak gaztelaniaz izango dira)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen itzulpenak birpasatu eta euskara batua erabili idatziz guztietan.</li> <li>- Egindako bisiten kopuruaren jarraipena egin, zenbat sarrera euskaraz eta zenbat erdaraz egiten diren web orrian.</li> <li>- Sare sozialetako argitalpenak %90 batean elebidunak izatea</li> </ul>
BEZEROEKIKO ETA HERRITARRERIKO HARREMANAK		
HELBURUA	EKINTZAK	LEHENTASUNA
1. Idatzizko komunikazioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezero eta herritarrekiko idatzizko harremanetan euskararen erabilera gehitu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kanpora begirako dokumentu orokorrak identifikatu, euskaratu eta moldatu. Testuak, argiak, zuzenak, egokiak eta erakargarriak izan daitezen</li> <li>- Ikastetxearekiko harremanak euskaraz nahi dituzten bezeroak identifikatzen hasi gara</li> <li>- Komunikazio landu eta ikasle eta herritarrei jakitera eman euskaraz hitz egiteko aukera dutela</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oraindik elebietan ez dauden dokumentuen identifikazioa egin eta elebietara moldatu.</li> <li>- Hezkuntzako aplikatiboak ematen dizkigun aukera guztiak aztertu: faltak eta noten buletinak.</li> <li>- Irakaskuntzako konpromesuan: ikastetxetik emandako idatzizko dokumentuak euskaraz jasotzeko aukera eman</li> <li>- Edozein informazio, euskaraz jasotzeko aukera bermatuta egotea (pertsonak euskaraz ez badaki, beste persona euskaldunengana bideratu)</li> </ul>





<p>2. Ahozko komunikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezero eta herritarrekiko ahozko harremanetan euskararen erabilera gehitu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxearekin euskarazko harremanak sustatze aldera, komunikazioa eta sentsibilizazioa landu bezero eta herritarren artean</li> <li>- Adierazgarriak jarri bezero eta herritarren begi-bistan: txantxangorria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezero eta herritarrekiko erabilitako hizkuntzaren erabileraren neurketa ehunekotan (aurrez aurrekoa)</li> <li>- Harrera guztietan, agurrak euskaraz izatea</li> <li>- Euskaraz hitz egiteko aukera bermatuta egotea (harrera egiten duen pertsonak euskaraz ez badaki, beste persona euskaldunengana bideratu)</li> </ul>
--	---	---

**LAN -HIZKUNTZA**

**BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK**

HELBURUA	EKINTZAK	LEHENTASUNA
<p>1. Hizkuntza-paisaia: ikastetxe barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia bermatu (errotulazio guztiak elebitan egon behar dira)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza-paisaia aztertu da eta gabeziak antzeman ondoren elebietan ipintzeko irizpidea aplikatu da</li> <li>- Errotulazio txikia elebietan edo euskara hutsean jarri da: zigiluak, artxiboen izenburuak, bulegoetako agiriko elementuak eta abar.</li> </ul>	
<p>2. Idatzizko komunikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu edozein euskarritan</li> <li>- Teknologia berrietan eta harreman telematikoetan euskararen presentzia ziurtatu</li> <li>- Itzulpenak: itzulpen kopurua jeitsi eta euskaraz sortutako dokumentuak gehitu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileei jakitera eman da euskaraz lan egiteko erabilgarri dauden tresnak eta zalantzak argitzeko bideak: hiztegia.</li> <li>- Barrura begirako dokumentu orokorrak identifikatu dira eta elebietara moldatu dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean.</li> <li>- Euskaraz ez dauden idatzien bertsio elebidunak ziurtatu</li> <li>- Irakasle gelako txokoen eta idazkari bulegoko txokoen oharra eta berriak, elebitan jarri.</li> <li>- Zuzendaritzak, langile guztiei zuzendutako komunikazioak (mezu elektronikoak) elebitan izan behar dira.</li> <li>- Langileen arteko emailak, euskaldunak direnen artean euskaraz izan behar da.</li> </ul>
<p>3. Ahozko komunikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko langile guztiek agurrak euskaraz esateko ohitura hartu dute</li> <li>- Langileen artean euskararekiko sentsibilizazioa landu da</li> <li>- Euskaraz mintzatzen dutenen artean euskara da lehenengo hitza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-taldeetan erabilitako hizkuntzaren neurketa egin</li> <li>- Langileek euskararekiko konpromesua hartu</li> </ul>
<p>4. Tresna eta aplikazio informatikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko "postu" bakoitzean ordenagailua euskarazko bertsioan nola jarri informatu da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Merkatuan dagoen eskaintzaren ezagutza sakona egin</li> <li>- Euskaraz instalatutako programen kopurua neurtu</li> </ul>
PERTSONEN KUDEAKETA		
HELBURUA	EKINTZAK	LEHENTASUNA



1. Langileen prestakuntza orokorra eta hizkuntza gaitasuna: - Langileen euskara-gaitasuna hobetu - Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu	- Euskaraz mintzatzen dutenen langile kopurua atera da - Euskarazko tituloa dutenen kopurua eta maila atera da - Euskadun dan langile berrirekin, harrera euskaraz egiten da - Langile etorri berrientzako protokoloan euskara politika sartu da	- Langileen euskararen gaitasuna hobetzera zuzendutako ikastaroak eskaini - Langileen artean galdetu zeinek duen interesa euskara ikasteko
2. Kontratazioa eta Lege-dokumentuak: - Kontratazio fase guztietan euskararen erabilera bermatzea	- Nominak elebietan ematen dira - Hitzarmen kolektiboa euskaraz lortu da - Langileen ordutegi eta egutegiak elebietan jarri dira	- Kontrazio irizpideetan perfil bardina betetzen dutenen kandidatoen artean, euskaraz dakiten lehentasuna ematearena jarri
KANPO-HARREMANAK		
HELBURUA	EKINTZAK	LEHENTASUNA
1. Idatzizko komunikazioa: - Ahal den neurrian, administrazio eta erakunde pribatuekin idatzizko harremanetan euskararen erabilera gehitu	- Hartzailea nor den kontuan hartuko da hizkuntza aukeratzeko orduan - Euskaraz mintzatzen duten Administrazio batzuk identifikatu dira: lehen aukera, ikuskaria, ... - Administrazio eta erakunde pribatubatek euskaraz bidalitako komunikazioei euskaraz erantzuten zaio - Administrazioak dituen aplikazio desberdinak (Hezkuntzaren ataria, Lan-F) euskaraz kontsultazeko aukera eredute	- Hornitzaile eta hartzekodunei inkesta bat pasatu idatzizko hizkuntza zein gura duten galdetuz, gure euskara politika adieraziz. - Euskaraz komunikatzeko aukera ematen duten administrazio, erakunde pribatu edo beste edozein entitate identifikatu
2. Ahozko komunikazioa: - Ahal den neurrian, administrazio eta erakunde pribatuekin ahoko harremanetan euskararen erabilera gehitu	- Hartzailea nor den kontuan hartuko da hizkuntza aukeratzeko orduan - Administrazio eta erakunde pribatubatek euskaraz hasitako komunikazioei euskaraz erantzuten zaio.	
3. Argitalpenak: argitalpenetan euskararen presentzia ziurtatu eta, ahal den neurrian gehitu		



#### 4. HIZKUNTZA POLITIKAREN JARRAIPEN –LAN-TALDEA

Hizkuntza-politika plana eta orain arte zehaztutako helburuak bere osotasunean garatu ahal izateko beharrezkoa da egitura sendo bat izatea. Plan hau aurrera eraman al izateko, gune bakoitzeko arduradunak izendatu dira. Arduradun hauen eginkizun nagusia, hizkuntza-politikoan azaldu diren hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzea da. Gainontzeko langileek pertsona hauek hartuko dute erreferente moduan eta duda edo arazorik izan ezkeru hauengana joko dute.

Baliabideak kudeatu eta planaren dinamika ziurtatzeko hurrengo azpiegitura proposatzen da:

IZEN-ABIZENAK	KARGUA	EUSKARAREN EZAGUTZA MALA	
		HITZ EGIN	IDATZI
Itxaso Larrinaga Uribealzo	Zuzendaria	Altua	Altua
Iker Larrinaga Uribealzo	Zuzendari ordea	Ertaina	Ertaina
Amaia Urizar Estandia	Idazkaritza guneko arduraduna	Altua	Altua
Itxaso Diaz de Otazu Zarraga	Ile-apainketa guneko arduraduna	Altua	Ertaina
Amaia Zabaleta Barbarias	Estetika guneko arduraduna	Altua	Altua